

GLOSATEGIA

Lana:

Hiztegiko definizioa. Onuragarri den zerbait lortzeko egiten den jarduera edo ahalegin jarraitua. Lanbidea, jarduera profesionala.

Definizio antropologikoa: lanaren banaketa: kontzeptu gisa lehen aldiz 1933an erabili zuen Durkheimek. Lanaren banaketak berak, lanen eta pertsonen iherakizazioa dakarrela ikusi zen ondorengo berrikuspen batean.

Lan erreproduktiboa:

Bizitzaren mantenua, erabilgarritasuna bermatzen duten lanak. Lan erreproduktiboaren hiru dimentsio bereizi zituzten Harris eta Youngek 1981ean: giza erreprodukzioa edo erreprodukzio biologikoa, lanaren erreprodukzioa edo lan indarraren erreprodukzioa, erreprodukzio sozial eta sistemikoa.

Zaintza:

Comas d'Argemirren iritziz: Gizakien bizitza, osasuna eta ongizatearen ohiko mantenu eta gestioa da. Bizitza guztian zehar behar den eta izaterekin erabat lotua dagoela dio zaintza. baina ikuspuntu hau gizarte guztiak ez duela gaineratzen du.

Estebanek, zaintza adina edo gaixotasunagatik mendekotasun bat duten pertsonetikiko egiten diren jardurekin lotzen du.

Nazioa: “La nación es una comunidad imaginada, generadora a menudo de intensa lealtad. Sin embargo, también es problemática, tanto porque se trata de una creación artificial como porque el estado en que uno vive puede no ser la nación con la que uno se identifica”.

IDEIA NAGUSIAK

1. 1. LANA

1.1. ZER DA LANA?

- Zerbait lortzeko egiten den hori
- Bizirauteko beharrezkoa dugu gizakiok, gizartea sostengatzeko
- Unibertsa da, baina, aldi berean, tokian tokikoa.
- Alderdi materialarekin lotzen dugu, baina bada ere fisikoa ez dena
- Mundua moldatu eta antolatzen du

1.2. EZAUGARRIAK

-

- teknika maila
- ikasketa maila
- espezializazio maila (besteen menpe, autonomo)
- erritmoa, denbora (hauek zeinek/zerk markatzen dituen)
- eguneroko beharrianekin lotura
- naturaren elementuekiko menpekotasuna edo hauen erabilera
- energia erabilera

1.3. LANAREN BANAKETA

-

Zerk egituratzen du lanaren banaketa?

- adina
- sexua
- prestigioa
- estigma
- erabakitze ahalmena
- diru-sarrerak
- balio soziala edo ikusgarritasuna
- aitortza juridikoa: zein eskubide dituen (edo badituen) eta enplegu moduan onartzen den

- Durkheim. (1933) “La división del trabajo en la sociedad”.

Lan banaketaz hitz egiten lehena izan zen eta gizarte tradizionalak eta industrialak bereizi zituen:

- Biziraupeneko gizarteak: lan autonomoa, lan handiagoa zen. Lanen arteko osagarritasuna ez

zen bereziki handia à elkartasun mekanikoa

- Gizarte industrialak: lan bakoitzak ez du ale oso bat bukatzea lortzen, sistemak osagarriak diren elementuak behar ditu, kate batean bezala, elkar-dependentsia. Enplegua bereizten du, izena jartzen zaio eta gizartea egituratzen du à elkartasun organikoa

Kritika: nahiz eta lanak kokatzen gaituen gizartean, badaude ere beste elementu batzuk (arraza, adina, ...)

- Marx eta Durkheim. Lan banaketaren zenbait elementu unibertsalak

Elementu unibertsalak, berezkoak eta naturalak zirela esan zuten

- Genero ikuspuntutik kontzeptuaren berrikuspena

60-70. hamarkadetan lanaren banaketaren ideia berrikusi zen

1.4. LANAREN BANAKETA SEXUALA

Genero ikuspuntutik kontzeptuaren berrikuspena egin zen

Lanak 2 dimentsio banatzen ditu:

- zereginen arteko banaketa eta hierarkizazioa
- Pertsonen arteko banaketa eta hierarkizazioa

Pertsonak egiten ditugun lan(ar)en arabera antolatzen gara

Antropologian:

Margaret Mead:

- Lan banaketa unibertsala bada ere, tokiak tokiko berezitasunak ditu, hala ere, lan maskulinoei aitortza gehiago ematen zaie.
- Toki ezberdinetan gizonak eta emakumeak lan desberdinak egiten dituzte
- lan banaketa antolakuntza sozial baten ondorio da, ez da naturala

- Lan batzuk aitortza soziala jasotzen dute, eta beste batzuek ez. Garrantzia ekonomikoa dutenei erreparatzen zaie gehiago. Adibidez: ehiza vs. bilketa. Neolitikoan ehizaz baino bildutako fruituaz bizi ziren, batez ere emakume eta hurrek egindako lanaz. Egun ordea,

aitortza soziala duena ehiza da. Askoz ere gutxiagorako balio bazien ere eguneroko biziraupenerako. Ehizak arrisku gehiago zuenez ... egun aitortza sozial handiago.

- Antropologian emakumeen zereginak propio ikertzera joan arte gizonak bakarrik ikertzen ziren.
- Lana zer den eta zer ez den bereiztea zaila da.
- Sexuen arteko lan banaketa unibertsala da, baina partikularra, tokian tokikoa eta aitortza maskulinoa duelarik.
- Ortner (natura/kultura) eta Rosaldo (publiko/pribatu) antropologoek ere bereizten zituzten lan banaketak dikotomien bidez, eta gerora kritikatuak izan dira.

1.5. EKOIZPENA ETA ERREPRODUKZIOA

-

LAN ERREPRODUKTIBOA

Erabilgarritasuna duen zerbait ekoizten duen lana da, eta bizitzaren sostengarritasunarekin lotzen da (garbitasuna, zaintza, elikadura, hezkuntza, ...)

Elkarrekikotasuna: bi lan motak (erreproduktiboa eta produktiboa) osagarriak dira, bata bestea behar du.

Claude Maillasoux (1977): “Mujeres, graneros y capitales”

Garrantzitsua lan indarraren gaineko kontrola izatea da, ekoizteko tresnaren edo lurren jabetza baino. Emakumeek sortzen dute lan indarra (ugalketarako gaitasunagatik) eta ondorioz, emakumeen zapalkuntza azaltzen da.

Harris eta Young 1981: Lan erreproduktiboaren hiru dimentsio:

- Giza erreprodukzioa, edo erreprodukzio biologikoa
- Lanaren erreprodukzioa (lan-indarraren erreprodukzioa)
- Erreprodukzio sozial edo sistemikoa

Lehenengo bietan emakumea agertzen da, baina hirugarrenean ez zaie aitortzen.

Dikotomia apurtzea: Lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko dikotomia hautsi egin behar da, hau da, mendebaldeko ereduarekin (mendebaldeko teoriak kategoria “unibertsalak” eraiki baitituzte herri guztiak aztertzeko). Erreprodukzioa lanak eremu pribatutik atera direnean lausotu da

produktibo erreproduktibo dikotomia. Zailagoa da bien arteko bereizketa egitea. Gainera, familia-lana-enpleguaren arteko banaketan ez dago hainbesteko harremanik.

Antropologiaren ekarpena:

- Lanaren banaketa sexuala unibertsala, baina tokian tokikoa
- Dikotomiak apurtu
- Zaintza erdigunean, bizitza zentroan
- Ekonomiaren erdian bizitza (ez lana)

1.6. ZAINZTA Zergatik ez da lana pertsonak ekoiztea?

Zaintza ere bada bizitza soziala zaintzea. Bizitzeko ezinbestekoa da, unibertsala, baina tokian toki antolatzen da. beraz, soziala da, kulturala. Zaintzaren antolaketan generoak badu garrantzia, baina baita arrazak edo jatorriak bezalako elementuek ere.

Familiarekin eta emakumeekin lotzen da, eginkizun morala balitz bezala eta ondorioak ez dira kudeatzen (adb: ondorio bat: erasoak).

ekonomia del afecto: afektu lana ez da aitortzen. Kontutan hartu behar dugu menpekotasuna bizitza osoan zehar dugula: ez umetan, zahartzaroan eta gaixotasunean soilik.

1. 2. POLITIKA

2.1. ZER DA POLITIKA?

Bizitza soziala antolatzen eta arautzen du, behartuaz, zigortuaz, etab.

Gizakiak zein gauzak eraiki, kudeatu, antolatu eta kontrolatzen ditu à boterea

Politika boterearen erakuslehoio. Politika eta boterea gizon figurari egon da lotua historian zehar. Estatu eta demokraziarekin (edota bere faltarekin) lotzean, gizon figura da irabazle. Gizarte osoari eragiten dieten gauzen kudeatzaileak.

Eragile instituzionalez gain, badaude ere instituzionala ez direnak (herri mugimenduak, adibidez). Publikotasunarekin dute lotura.

2.2. GENERIZATUA

- Parte-hartzea desorekatua
- Arlo publikoaren antolakuntza maskulinoa
- Politikaren edukiak lotuta gizonen kezkekin. Gizonen kezkek plazaratzeko erabili izan ohi dena
- Emakumeak berdintasun kontuetan, mugimendu feministan edo ekologismoak kokatzen dira
- LGTBIQ+ mugimenduek ez dute ia bisibilizaziorik eta dutenean beren arazo edo kezkekin lotzen da

Feminismotik aldarria: “goazen politizatuak ez dauden eremuak politizatzer” genero harremanak ere politikoak direlako. Maiuskulaz idazten den politika dago borroka armatuarekin lotuta, eta minuskulaz idatzitakoa.

Bakezaleak emakumeak baina bake hitzarmenetan gizonak ageri. Zer bake eraikitzen da ordea? Borrokan ere hierarkizazio bat ematen da.

2.3. Eragile instituzionalak: ESTATUA

- Indarkeriaren monopolioa eta zilegitasuna
- Lurraldetasuna eta barruko populakuntza
- Instituzio nagusiak: armada, polizia eta sistema judiziala

Maskulinitate hegemonikoa: non?

-
- Ongizate estatua

(Emakumeak hemen koka daitezke, baina orokorrean ez dira egoten botere posizioetan)

- Osasungintza
- Hezkuntza
- Kartzela
 - Zigorra oso maskulinoa da
 - Zigor bikoitza: emakumetasunarekin apurtzeagatik
 - Lan femeninoak, antolakuntza maskulinoan
- Legedia

- Adb.: abortuaren aurkako legea
- Populakuntzaren kontrola
- Emakumeen eta gorputzen gaineko kontrola eta bortizkeria
- Gudak / Armada
- Emakumeek ezin zuten egon, edo 2. mailan
- Etsaiak atakatzeko modu bezala (bortxaketak, ...)
- Estrategia moduan: gudariak behar badira, emakumeak objektu bezala tratatzen dira umeak behin eta berriro sortzeko

2.4. Politika ez-instituzionalak: HERRI MUGIMENDUAK

Herri mugimenduak ezkertiarak eta gizartearekiko kritikoak dira (berez)

Generoa 3 dimentsiotan:

-
- Parte-hartzearen ikusezintasuna. Egiten dituzten lanak ere ikusezinak dira
- Egiten dituzten lanak, nahiz eta ikusi, ez dira baloratzen. Ez zaio garrantzia edo aitortza ematen
- Emakumeak espazioaren botere guneetatik eta erabakitze guneetatik urrun

Parte-hartzea politikan à emakumeak baztertuak:

- Batetik, espazio horretatik kanpo beste ardura batzuk dituztelako
- Bestetik, ikasle edo enplegu ordutegien arabera zehazten direlako bilerak
- Gainera, parte-hartzeko modu desberdinak daude: sozializazioaren garaian, hitza hartzeko, arriskatzeko, ... emakumeek arazo gehiago dituzte. Hala ere, rolak ezin dira esenzializatu
- Horretan gain, erosotasuna. Askotan emakumeak eroso ez egotea suertatu daiteke ahotsa altxa behar delako, bortitza delako, besteen gainetik jarri behar delako, etab.
- Amaitzeko, emakumeen hitza ez da berdina kontutan hartzen kolektiboan

Zailtasunak:

- Rol femeninoetatik parte-hartzeko
- Rolak apurtzeko

Lan banaketa:

-
- 24 orduko militantearen papera: Figura hau beti prest egotean, horretarako beste norbaitek egon behar du beti prest berari behar duena emateko.
- Militantzia (\approx militarra): indarra, ausardia, sakrifizioa. Parte-hartze politikoa eredu militarrekin lotzen dugu; gizonena eta maskulinoa

Euskal Herrian:

Euskal testuinguruan, borroka armatuan Gudariaren figura dago erdigunean. Emakumeak historiatic eta azterketetatik baztertuta egon dira. Ez da hartu berain presentzia besteenaren parean, ez da kontutan izan. Euskal emakume presoen inguruan gutxi egin izan da hitz (azken urteetan gehiago).

2.5. NAZIOAREN ERAINKUNTZA ETA GENEROA

- Nazioa prozesu moduan: eraiki egiten dugu, esanahia ematen diogu, egiten den zerbait da. Ez da zurruna eta estatikoa
- Nazio politikoa eta nazio kulturala bereizi behar dira
 - Nazio-politikoak: egitura politikoa bilatzen du. Hizkuntza, kultura, ... antolatu nahi du eta aitortza formala bilatzen du
- Nazioa-estatua: beti ez doaz batera
- Nazionalismoa: mugimendu sozialek herri edo nazioa bilatzen/borrokatzen dutenean. Mugimendu sozialek herri baten komuneko elementuak biltzen dituzte, hauek baitira autogobernuaren ideia komunitatean sartzeko elementuak

Ama biologikoen papera:

Ugalketa beharrezkoa da nazioa sortzeko eta indartzeko

Emakumeen papera: ama sinbolikoa/kulturala izatea, hau da, kultura sinbolikoa erakusten dute.

Euskal nazionalismoan 2 momentu gako:

-

1- XX. mendeko 20-30. hamarkadetan à aberriaren definizioa (Arana). Arraza, historia, lege zaharra, katolizismoa.

Emakumea: Eva eta Maria = arriskua eta ugalketa. Ama aberriaren ideia.

Emakumeen paperaren garrantzia: hizkuntza eta hezkuntza, kultur transmisioa

2- 50. hamarkadatik aurrera à ikastolak, euskal kultura zabaltzen doa.

Emakumeak zaintza papera izaten jarraitzen du

Beste autore batzuen ideiak:

Comas d'Argermir, Dolores (2014) “Los cuidados y sus máscaras. Retos para la antropología feminista”

Antropologia feministaren ekarpenak zaintzen kontzeptura aberasgarriak izan dira.

Zaintza gizarte guzietan existitzen bada ere, gizarte harreman desberdinen baitan ematen direla azpimarratuko du eta testuinguru konkretu bakoitzean esanahi desberdina jasoko duela gogoratuko. Sexualitatea eta ahaidetasuna zaintzarekin duten harremana ere plazaratuko du. Emakumea bizitza erreproduzitzeko gai den heinean zaintzak dagozkiola ondorioztatzen delako. Eta bestalde, ahaidetasuna genero eta zaintzaren zubi bilakatzen delako. Familia barneko lan banaketak ematen dira eta ahaidetasuna esanahi kulturalak biltzen dituen sistema den heinean, bere printzipio eta antolakuntzaren baitan, famili arteko harreman batzuk, behar moraletara eta maitasun eta zaintzarako arautuko. Hemendik gizon eta emakumeen lan banaketa zerbait naturala bezala biziko da.

Feminismotik, banakakoaren egoera politizatzeko joera egon denez, agerian jarriko ditu aitzaki horrekin ematen diren botere harremanak, eta gehiegikeriak. Gure gizarte honetan lan banaketan emakumeari lan erreproduktiboa egokitu zaio, baina gizarte kapitalistan eman den joeran, emakumea soldatapeko lana egitera gero eta gehiago etxetik atera denez egoera aldatu egin da. Ondorioz zaintza lanak gizarte osoaren arazo izatera igaro dira.

Zaintza lanak modu egokian bideratzeko eman diren laguntzak ez dira beti emakumeen onurarako gertatu nahiz eta beraientzako pentsatutakoak izan

Zaintzaren kontzeptua zabaldu egin behar da. Bizitza osoko lana dela onartuz. Batzuetan lan eta denbora gehiago eramaten badu ere.

Politika publikoaren arazoa honela, zaintza familiaren erantzukizuna dela pentsatzean datza alde batetik eta aipatu bezala zaintza bizitzaren hasierara eta bukaerara mugatzen direla. Honek politika horien porrota ekarri du edota ez errealitateari modu egokian aurre egitea.

Lanaren banaketa ez da aldatu politika publikotik laguntza desberdinak jaso badira ere, eta ez da

lortu gizonak zaintzara hurbiltzea. Eskubideak aldarrikatu dira zaintza duina jasotzea etab. baina zaintza lanetan sexu banaketak agerian diardu.

Familiakoek eginiko zaintza lanak ez dira profesionalak bezala onartzen eta ez dute besteek haina onespen sozialik.

“Economía del afecto” gastu publikoari mesede egiten diote emakumeek zaintza lanak egiten dituztenean familia kideak zaintzako. Badirudi maitasunarekin batera joan behar dutela. Honek ordea sexu banaketan desberdinkeria latzak dakartza eta desorekak ondorioz.

Bestalde ez da beti familiak zaintzea nahi izaten, beraz emakumeei zaintza lanak esleitzeko argudioak eta gizarteak ezarritako arauetan arakatu beharko da. Beren maitasunaren eraikuntzan etab.

Behar moralak eta sentimenduak zergatik areagotzen diren emakumeengan jakin beharko da eta zer puntutaraino “aukeratzen” ote dituzten zaintza lanak jakin.

Sagastizabal, Marina eta Legarreta, Matxalen (2016) "La "triple presencia-ausencia: una propuesta para el estudio del trabajo doméstico-familiar, el trabajo remunerado y la participación sociopolítica":

Zaintza lana hiru ikuspegitatik aztertu behar da:

1) *Materiala*: emakumeak eginiko zaintza lana plazaratu publiko bihurtu beharra. Bi lan desberdin pilatu zaizkie: soldatapekoa eta zaintza lana, honi “*lan karga globala*” deituko dio. Eta “*lan karga totala*”: aurrekoei etxetik kanpo egiten den borondatezko lana gehitzean.

2) *Genero sozializazioa*: lan banaketa desorekatuaren oinarrian zer dago? denboraren disponibilitatea, baliabide ekonomikoak eta genero efektua (emakumea zaintza eta etxeko lanetara murrizten duena eta gizona ez) Beharbada krisiaren eraginez honek aldaketak izan ditzake, gizona etxeko lanetara hurbilduz. Denborak esango du.

3) *Zaintzaren etika*: (justizia etikarekin alderatuz) gizakiaren zaurgarritasunak egon behar du erdigunean eta zaintzaren ulerkerak multidimentsionalari erreparatu behar zaio. Alderdi subjektiboa eta prestutasun etikoari indarra emanez.

Presentzia-ausentzia hirukoitzaren proposamena:

Lanaren ikuspegi zabala eduki behar da: soldatapekoa izan daiteke, etxeko eta zaintza lana eta partehartze soziopolitika ere. Egoera hirukoitza bizi dutenen esperientzia ezagutu behar da, hori litzateke helburua. Beti ere denboraren ulerkerak objektibo eta subjektiboa errespetatuz.

Proposamen Analitikoa:

Guzti honen garapen enpiriko eta politikoa egiteke dago.

Esteban, Mari Luz (2017) "Botere politikoa, ahalduntzea eta lidergo kolektiboak" eta "Zaintza edo feminismoa sentimentalizatzeko arriskua"

Boterea, kontrola, hertsadura eta genero desberdintasunean oinarritzen da. Emakumeak baztertzeko estatu-hierarkia eta indarkeriarekin bat egiten du.

Feminismoak bi joera izan ditu: egun indarrean dagoena: emakumearen botere eza azpimarratzen duena eta bestea: botere egiturak errotik kritikatzeko duena.

Politika femeneizatzea: emakumearen presentzia duin bat bermatzeaz gain, politika eta etikaren erroak barneratu behar ditu.

“Femeninoa” ulertua izan da, zaintza, elkartasuna, komunitatea eta politika egiteko osagai bezala. Bertan ahalduntze kontzeptua funtsezkoa izan da. Honek ordea, badu arriskua: beste norbait “desahalduntzea”. Feminismotik politika heteropatriarkala eta neoliberala jarraitzeko arriskua hareagotuz. Bestalde emakumearen botera desegonkorra, partikularra eta hauskorra izatera murriztuz.

Ezinbestekoa da gizarte mugimendu indartsua politikan botere aldaketa emateko. Honetarako emakumeen arteko aliantza ezinbestekoa da eta gizonen konplizitatea ere.

Zaintzaren auzia ere aurrez aurre hartu behar da: zutabe da egun feminismoan. Bereizketa bat azpimarratu da zaintza VS artatzea. Lehena emakumeen esku, bestea gizonen esku. Bigarrenak onarpen sozial handiagoa duelarik.

Zaintzaren baitan bereizi beharrekoak dira ere, emozioa eta afektuak. Emakumeen balio ea gaitasunak aitortu behar dira ere, ikuspegi kritiko eta autokritiko bat garatuz.

Adiskidetasuna bihurtu behar da sostengu eta babes nagusi.

Gonzalez-Abrisketa, Olatz (2016[2014]) “Desplazaturako gorputzak. Generoa, kirola eta kultur protagonismoa euskal testuinguruan”

Gorputz maskulinoa euskal identifikazioaren erdigunean. Identifikazioa horren ondorioz, emakumeak baztertu egiten dira, kirolean eta jokatzeko den espazioan. Maskulinitateak du euskal gizartean espazioan protagonismoa. Gizarteak bere buruaz duen irudia ez da emakume irudia.

Esku pilota, euskal balio askoren adierazgarria eta ideal hori gizonen somatizatzen da, indarra, erresistentzia... Frontoia ere herriko erdigunean espazio garrantzitsuenean dago, eliza eta udaletxearen atxikitua askotan. Jendea begira, frontoi zentroa da bilakatzen da ikuslehiario. Emakumea ez dago bertan. Publikoan soilik. Plaza bera, generizatua gelditzen da, maskulinoz ematen diren ezaugarriak erakusten direlarik. Ikustea merezi duena beraz maskulinoa da.

Kirolean naturalizazioa errazagoa da eta feminismoari labainkorragoak egiten zaizkio bertako diskurtsoak eraldatzea. Bertan sexu banaketa justifikazio mila aurkitzen dituzte.

Nazio eraikuntzan ere bere narratiba belikoez josita zaila da emakumea irudiarekin harremanik

izatea. Amak gorputzak ematen dizkio nazioari eta semeek beraien gorputzak ematen nazioaren izenean. Kirolak bake garaian narratiba honen genero eredia erreproduzitzeko oso baliagarria suertatzen da.

Pilotariak indartsuak ala azkarrak dira, bi ezaugarri ia kontrajarriak baina beti dira nobleak eta hau da emakumea bazterrean uzten duena era. Nobletasuna eta indarra kontenplatzeko dir, gorputz maskulinoetan biltzen den lotura estetiko eta morala.

Emakumea espazio publikoan kokatzean ez da besteen identifikazio bihurtzen, ez du harreman emozional hori garatzerik izaten begira duen publikoarekin.

Pilotaren munduan ez dago emakume profesionalik ez dute lekurik.

Plazagizona azkenean sinbolo bihurtzen da emakumeak ez du bertan lekurik, anaitasunezko lotura batek eraginda delako gizonen arteko anaitasun batek. Gorputzen eta adierazten dutenak egiten dute lekua eta gorputz batzuk leku bihurtzen dira gurean: plazagizona

Aretxaga, Begoña (1995) "Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia étnica de Irlanda del Norte"

Kartzelatutako gizonen protesta beren hondakinak zabalduz emakumeek beren odolarekin jarraitzen dute. Borrokak generorik ez duela aldarrikatu nahi zuten

Alfama y Guillén, Eva (2009) "Hacia una perspectiva de género en el estudio de los movimientos sociales. La participación de las mujeres en la Plataforma en Defensa de l'Ebre"

Genero desberdintasunak eragina izan duten esparrutan parte hartze politikoak ere izan du eraginik.

“Plataforman” emakumeak lan pribatuan gehiago jardun dira eta gizonak publikoan.

Segato, Rita Laura. 2016. “Las nuevas formas de guerra y el cuerpo de las mujeres.” In *La guerra contra las mujeres*. Madrid: Traficantes de sueños.

Gerrek azken hamarkadetan hartu duten formak aztertzen ditu Segatok testuan, gudak aldatu egin dira nabarmen. Iada ez dute bakea helburu, denboran asko luzatzen dira. Izateko forma bat dira.

Emakumeen gorputza testuinguru horretan kokatu du irakurgaietan. Emakumeen aurkako biolentzia albo kalte izatetik, objektu estrategiko izatera igaro da guda eszenatokitik. Gorputzen suntsiketarik hasi, trata eta komertzializazioan jarraitzen da guda testuinguruetan.

Guda arauen **informalizazioa** eta ohiko gerra moduen zabalpena, batez ere Hego Ameriketara. Batez ere krimen organizatua eta indar paramilitarren areagotzea aipatzen ditu, errepresio polizialarekin batera. Estatuetan barne guden, eta gatazka armatuen gorakada. Ez dute uniformerik, ez intsigniarik

ez banderarik elkarbanatzen. Sarritan ezta lurraldea, erritual edo zeremoniak ere. Ez dute hasiera eta amaiera argirik, ezta denbora eta leku mugarik ere. Emakumearen aurkako erasoekin, ez da etsaiaren gorputza erasotzen. Gorputz ez gudariak erasotzen dira, gorputz zaurgarriak eta beren sufrikarioarekin mezu argi eta ozena zabaltzen da, biolentzia zabaltzeko gaitasun mugagabea duten mezuak.

Krudeltasunez jokatzea da gorputz eta lurraldeen gaineko kontrola ezartzeko garantia bakarra. **Krudeltasunaren pedagogia**, sistema erreproduzitzeko estrategia. Gorputz ez gudarien gainean eragindako ankertasunaren funtzioa, gainontzeko genero biolentzien funtzioaren berdina da.

Gerra krimenen aurrean gaude. Bortxaketa, sexualki torturatzea emakumeei, eta zenbait kasuetan haur edo mutil gazteei, guda forma berrien krimenak dira. Ohiko genero krimen ereduetatik ezberdinak dira, nahiz eta elementu nagusiak patriarkatuaren estrukturetan bat etorri. Segatori azpimarragarria iruditzen zaio, ez gaude sexu motibazioa duten krimenen aurrean, baizik eta guda krimen aurrean.

Biolentzia orok dimentsio instrumentala eta expresiboa ditu. Sexu erasoetan, expresiboa da nagusi. Bortxaketekin botere mezua zabaltzen da, eta honen helburua ez da instrumentala. Ez da zerbitzua bilatzen delako bortxatzen, estrategia oso bat da, krudeltasunaren pedagogia da zeinaren inguruan botere sare osoa eraikitzen den.

Segatok espreski adierazten du, analisi honetan inongo momentuan ez duela *Gorroto krimen* kontzeptua erabiltzen, **azalpen monokausala** duelako, eta foru pribatu edo intimoa, emozionalari solik egiten diolako erreferentzia. Bortxatzaileak, edo erasotzaileak, armada, sikario talde edo dana delakoan kidetasuna agertu nahi du. Kalkulu hutsa da: kide izateko, zerbait erakutsi behar du. Krudeltasuna adierazgarria da, ez instrumentala, baina krudeltasunerako hautua bera instrumentala da.

Feminizidio guztien generoa dute erasoaren ardatz, ez da ezbaian jartzen estruktura patriarkal baten izaera biolentzia. Baina gertaeraren zioa edo zerk eragin duenaren arabera, bi talde bereiztea gomendatzen du: Batetik, arrazoi pertsonal edo interpersonalari erantzuten diotenak. Bestetik, arrazoi inpersonalak dituztenak hau da, emakume kategoria soila edo emakume izaera tipo bati erasotzen diotenak (arrazoia, etnia...). Artikulu honetan bigarren horietaz ari da. Hauei **FEMIGENOZIDIO** kontzeptua ezartzen die.

Guatemala, Mexiko, El Salvador, Hego Amerika eta Kongo hartzen ditu aztergai. Guztietan guda informalak intentsitate altukoak dira. Herralde hauetan, hiltzen diren emakume guztietatik, gutxiengoa dira bikote, edo bikote ohiek eraildakoak. Segatoren iritziz, feminismoaren hainbat sektorek ez du ezberdintasun hau onartu nahi. Komunikabideek erailketa guztiak unibertso intimo eta etxeokan kokatu nahi dituzte, emozioei eta afektuari lotuz. Kaltegarritzat jotzen du hau Segatok, feminitatearen mistikaren ideologia betierekotzen delako.

Kultura arteko ikuspuntu batetik ikusia:

Antropologiak giza zientzietan eginiko ekarpen nagusia kulturaren ikuspuntua txertatzea izan da

ikerkuntza egitean, eta batez ere kultura bakoitzak herri bakoitzari eman lekizkioken berezitasunei erreparatzearen garrantzia azpimarratzean.

Beraz gizakiak bizirauteko beharrezkoak dituen alorrak erlijioa, senidetasuna, ekonomia, egitura politikoak... gutxienik kulturak baldintzaturik aurkezten zaizkigu. Lanaren ezinbestekotasuna ukaezina da gizakiak bizirauteko, zalantzakorragoa da enpleguarena, eta lanaren kontzeptua eta honek historian zehar eduki duen antolaketa ezin da ulertu ardatz inportante bat kontuan hartu gabe, generoa. Zehazki generoaren ulerkera dikotomikoa, honen frogarik argiena lanaren banaketa sexuala da.

Antropologiaren meritoa beraz, feministarena batez ere, ez da hainbeste kultur ikuspegia txertatu eta lanaren alorrean lurraldez lurralde eman ohi diren berezitasun eta singulartasunen jasoketa aniztasunaren izenean, baizik eta kultura guzti hauek zeharkatu eta ikertu ostean, sexu bidezko lanaren banaketa izaera unibertsala duen egitura bat dela baieztatzea da. Eta honek lanaren antolaketak giza taldearentzat duen garrantzia kontuan hartuz erakusten digu JATORRIZKO ZAPALKETA giza espeziaren erdi batek bestea zapaldu duenean eman zela, eta honen afirmazioak sekulako balioa du ikuspegi humanistiko batetik. Borroka humanistiko honen adibide "sororitatea" kontzeptua da emakumeek munduaren begirada androzentriko eta patriarkatuaren etsaitasunean euren elkartasunerako balioan jarritako hitza, izaera fraternaleko hitza.

Matriarkatuaren adibidea: Hasierako antropologoak batzuk (gizonak) senidetasun ereduak kategorizatzean edo antolaketa sozialaren kontaketa ebolutiboa egitean matriarkatuaz hitz egiten dute, ondoren a. feministaren ekarpena izango da baieztapen hori mito bat dela azpimarratzea, etnografia eta analisiaren bitartez kultura ezberdinetako adibideak jarritz hori justifikatzeko. Euskal matriarkatua Teresa del Valle: Mujer vasca, imagen y realidad.

Kontuak kontu, bai existitzen dela lanaren banaketa bat aldaketa eta berezitasunak dituenak kulturaren arabera aurretik M. Meadek azaldu bezala. Toki ezberdinetan gizon eta emakumeek lan ezberdinak egiten dituzte, tokian tokiko partikularitasunak eragina du baina lan multzo hauetan errekonozimendua eta prestigio soziala ematen dutenak kultura guztietan gizonak egindakoak (ehiza - bilketa) dira eta hau gaur egun ere oso nabaria da nola aro modernoan kapitalismoaren hastapenetatik enpleguak eta ekoizpenak izan duen zentraltasuna izanik nola emakumea bertatik apartatua izan den batere errekonozimendurik ez duen lan erreproduktibora baztertuz eta ondorioz botere politiko-publiko-ekonomikotik bereiziz, zertarako? Gizona gailentzeko hain juxtu ta hain sinpleki esanda.

Nahiz eta, antropologiak eta kultura arteko tasunak erakutsiko digun kultura berberaren baitan aldaketak eta ezberdintasunak topatuko ditugula errealitate hauetan, adib. Mercedes Arbaiza historiagileak Euskal Herriako hainbat eskualde aztertu ostean emakumeak modu ofizial eta

agerikoan ez bazen ere lan produktiboan uste baino lehenago hartzen zuten parte ekoizpen dinamika eta ekonomia sozial zein familiarretan aportazioak eginez nahiz arau sozialak oraindik kategorikoki debekatu euren integrazioa lan merkatuan. Adibidez kostako emakumeei praktika hauek esleitzen zaizkie arrantzaren praktika zituen ezaugarriak medio (saregintza, gizonek denbora asko kanpoan ematea...2.mundu gerrako emakumeak ere fabriketara doazenean lanera) euren karakter borrokalariaren adierazle. Non bilakatzen da pertsona bat borrokalari zentzu politiko edo sozial batean? kalean, espazio publikoan engaitu denean.

Antropologiari eta gure inguruko munduaren inguruan ikasitakoa:

Beraz lanari lotua emakumeak lehenik isilpean eta ondoren lan merkatura jauzi egin bazuen ere orain hiru lau hamarkada, emakumeak etxetik, etxean egiten zituzten lan berberak egitera irten ziren: Garbitzea, irakastea eta zaintzea - beti ere orokortuz- integrazio honen partzialtasuna agerian utziz.

Honetaz gain konturatzen hasiak gara “bienes y servicios” delakoen ekoizpen faktoriek bi hiru eta lau errelebotara funtziona dezaten nahitaezkoa dela bizitza erreproduzitzeko ezinbestekoak diren baldintzak egikaritzea, hau da, gizonok fabrikara- mozkinen oinarritu den ekonomia zentrorra- gose gabe, arropa garbiz, behar bezala deskantsatuta, osasun mentalaz eta ipurdi garbiarekin joan daitezen emakumeak sortu dituela baldintza guzti hauek.

Honegatik Yayo Herrero, Amaia Perez Orozco eta Cristina Carrasco bezalako egileei jarraituz, ekonomiaren erdigunean lan erreproduktiboan bilatu dugun zaintzaren ikuspegia kokatzea benetan premiazkoa da. interdependentziaren ideari helduz eta irabazien logikari tokia kentzeko.

Honetarako garrantzitsua da zaintza emakumeari esleitzeko kausak ondo ezagutzea, antropologiak azalduko digu nola...Sexualitatea eta ahaidetasuna zaintzarekin duten harremana plazaratuz.

Emakumea bizitza erreproduzitzeko gai den heinean zaintzak dagozkiola ondorioztatzen da. bestetik , ahaidetasuna genero eta zaintzaren zubi bilakatzen da. Familia barneko lan banaketak ematen dira eta ahaidetasuna esanahi kulturalak biltzen dituen sistema den heinean, bere printzipio eta antolakuntzaren baitan, famili arteko harreman batzuk, behar moraletara eta maitasun eta zaintzarako arautuko dira. Hemendik gizon eta emakumeen lan banaketa zerbait naturala bezala bizitzea.

Nazio identitatearen eraikuntza eta botere politikoaren gorpuztea ere espazio edo plaza publikoa okupatzen duen gizonaren baitan eraikitzen den heinean, hemen ere emakumea baztertuta suertatzen da. Gorputz kontenplatioek beraz komunitate kontzientziak gorpuzten dituzte arautegi moral , jokatzeko modu oso bat iradokitzen duten gorputz kirol eta aktibitateen bitartez, jokabide moral egokiak markatuz, zeinetan emakumeak espazio honetan duen protagonismoa egun ez den

kontenplata ez onartua eta baldin bada beti bigarren plano batean edo jarrera pasibo batean den, Aretxaga hileta abertzaleetan adierazten duen bezala.

Antropologiak bere behaketa eta ikerketei esker adierazten digu, bere zuztarrak kulturaren ur sakonetan hondoratzten dituen arautegi moral-sozial honen sekuentzia nola gauzatzen den, hau da jokabide honen mekanismo kultural konplexua nola egikaritzen den pausoz pauso piezaz pieza jauzi mortalik egin gabe bere azalpenean. Honek berebiziko garrantzia du genero bereizketen jatorria eboluzioa eta ondorioak ulertzeko eta kontzientziak pizteko. Tresna hau ez bagenu, antropologia, ezinezkoa litzaiguke aldagai hauek atzematea.

Proposamena: Olatzen testuak adibidez irakurriz lehenagotik hitzez jakin bagenekien zerbait, sakonago barneratzen eta kontzientzia aktiboago batera pasatzen lagundu gaitu. Ekintza potentea litzake kultur arloan sentsibilitate bereziko arloa izaki, norbanako edo gizon taldeen artean kontzientzia berriak piztu eta une jakin batean aldarrikapen bat egitea zera esanez gizon bezala artista bezala urtebeteko geldialdia hartzea alor publikoa aktuatzeari uko eginez. Orain arte izandako pribilegioak onartu eta protesta ekintza gisa edo kontzientzia ekintza gisa urtebetez eszenatokiak uztea jarraian eszenatoki horiek emakume artistek okupatzeko guztiz. Guzti hau beharrezkoa den hedapen publikoa eginez eta beharrezkoak dituen erpinak landuz: salaketarako baina baita formaziorako, prestaketarako.... Hutsunetik kultur olatu feminista bat sortzea.

Imajina dezagun bertsolarien finalean 8 finalisten artean dauden gizon guztiek euren posizioaz eta izandako ibilbideak izan dituen "bentajismoaz" kontzientzia hartu eta alde batera pausoa eman ondoren 8 emakumetako final baten aurrean topatzen garela 13000 lagun BECen + telebista..... Erdiek egingo balute ere latza izango zen. Eta honela zabaldu ekimena arlo batetik bestera.

Dimentsio ezberdinak lituzke ekimenak baina bat oso garrantzitsua ere, dimentsio pertsonala hain zuzen. gizonezko bakoitzak onartu beharko lukeelako bere gorputz eta haragitan errebisio bat egin behar duela bere izanaz eta ekintzaz. Beste dimentsio bat publikoa litzake honelako ekimen batek sortuko lukeen arragotsa eta agenda politikoan sartzea edo sakontzea, eta kultur espresioa femeninoa biderkatzea eta aspaldi berea ere behar zukeen espazio bat emakumeak hartzea, bereganatzea hertsadurak eta konplexuak deseginez, oro har kultur munduari aberastasun bat ekarriz.